

KONTROL MOZIOA

BIDEGORRI AZPIEGITURAK ETA SAREA DIRELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren 12an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioen ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bizikleta da donostiarrek duten garraibide merke, ekologiko eta osasungarriena. Halaber, hiriko trafiko-pilaketak, zarata-kutsadura eta BEG isurketak murrizten laguntzeko egungo eta etorkizuneko alternatiba da. Zentzu honetan, Donostiako 2016 Kultur Hiriburutzak ibilgailu ofizial izendatu izana erabaki eredugarria iruditu zitzaigun, baina errealitateak, tamalez, ez dio apustu horri justizia egin.

Urte osoan zehar, dBizi sistema zertxobait egonkortzea lortu da eta bizikletaren bizikidetzaren aldeko kanpainak egin dira. Baina sarearen zabalpenari dagokionez, soilik aurreko legegintzalditik zetorren Añorga Txikiko adarra osatu du Udalak, nahiz eta hainbat proiektutarako aurrekontu zabala izan (30 guneak, bereziak). Bizikleta-azpiegiturei dagokienez, Carlos I.eko pasabideko proiektua lurperatu da, lurrazpiko udal parking-etako batzuk egiteke daude (Cervantes plz.) eta Atotxako geltoki intermodalekoa oraindik ere martxan jarri gabe dago, nahiz eta dagoeneko 8 hilabete igaro diren geltokia definitiboki ireki zenetik. Horrez gain, neurri gutxi ezarri dira bidegorri-sarea egonkortzeko, seinaletika propioa, informazio-bitartekoak edo itxaron-gune aurreratu gehiago izan daitezkeen bezala.

Horregatik, guretzat ez da urte emankorra izan mugikortasun ziklistarako. Gauza bera adierazi du eremu honetan Donostian erreferente den Kalapie elkarteak, Udalak aurten ez duela bizikletaren aldeko apustu irmorik egin salatu du-eta. Aurreko legegintzaldietatik zetorren bizikletaren aldeko apustua berreskuratu behar dugula uste dugu, ez soilik garraibide propio gisa, baizik eta ikuspegi intermodal batez, beste garraibide batzuetara hurbildu edo haietatik helburu-puntura iristeko bide bezala.

Honenbestez, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako bizikletaren erabilera intermodalaren adierazgarri nagusi gisa, ahalik eta eperik motzenez akordio batera ailegatu dadila Atotxako geltokiko esleipendunarekin eta zerbitzuaren kudeaketa eredu definitu bezala, herritarrek geltokiko bizikleta aparkaleku berria behingoz erabilgarri izan dezaten.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017an apustu egin dezala bizikletaren alde: urte honetako aurrekontuaren mugikortasun ziklistarako kontu-sailak bizikleta proiektuetarako (eta ez beste proiektu batzuetarako) exekutatu ditzala eta ez diezaiola uko egin bidegorri-sarea egonkortu, zabaldu eta bizikleta-azpiegiturak handitzeari.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gutxienez, aintzat hartu eta azter ditzala Udalbatzako talde politikook eta mugikortasun iraunkorreko elkarteek bizikleta eta mugikortasun ziklista sustatzeko proposatzen ditugun proiektuak.

Donostian, 2016ko abenduaren 15a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia